

2011ko irailean %7 bidaiari gehiago etorri da Euskal AERA

Uztail, abuztu eta iraileko balantzea egin ostean 2010ean baino 38.342 bidaiari gehiago etorri dira hilabete horietan, %5 gehiago beraz

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Eustaten datuen arabera, 2011ko irailean 229.118 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 14.386 gehiagok; horrenbestez, %7ko gehikuntza izan da. Arabara heldutako bidaiari kopurua %5 gehitu da, Bizkaira heldutako kopurua %11 eta Gipuzkoara heldutakoena %2.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak %3 egin du gora, eta atzeritik etorritakoen kopuruak %14. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua Araban %9 igo da eta Bizkaian %8; baina Gipuzkoan %7 egin du behera kopuru horrek. Bizkaira eta Gipuzkoara joandako atzeritar kopurua ere gehitu da, %16 bi lurraldeetan; Araban, aldiz, kopuru horrek %3 egin du behera.

Estatuko bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekorik handienak Andaluzia, Gaztela eta Leon, Katalunia, Madril eta Nafarroatik etorritakoenak izan dira. Baina gutxitu egin da Asturiastik, Balearretatik, Valentziako Erkidegotik eta Galiziatik etorritakoen kopurua. Atzeritarren artean Alemania, Frantzia, Italia, Holanda eta Erresuma Batutik datozenen kopurua gehitu da eta Portugal, Austria eta Belgikatik datozenak gutxitu.

2011ko irailean 442.457 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko irailarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua %7 gehitu da, guztira ia 27.680 gau gutxiago igaro baitituzte. Igarotako gau kopuruek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute Bizkaian, %12 igo baitira; Gipuzkoan ere igo da kopuru hori, %4. Araban, ordea, %1 egin du behera.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 2010eko iraileko bera izan da; irail honetan aurreko urteko 1,93 eguneko egonaldiak egin dira Euskal AE osoan. Lurraldeka, Araban 1,88tik 1,77ra jaitsi da egun kopurua; baina Bizkaian 1,85 egunetik 1,86 egunera igo da eta Gipuzkoan 2,05tik 2,10 egunera igo da.

Plazen okupazio mailak %5 egin du gora, 2011ko irailean %54,68koa izan baita. Igoera hau Bizkaian (%8) eta Gipuzkoan (%4) eman da, baina Araban %3 egin du behera. Araban plazen araberako okupazio maila %48,05ekoa izan zen 2010eko irailean eta %46,84koa 2011ko irailean; Bizkaian %49,28koa izatetik %53,13 izatera igaro da eta Gipuzkoan 2010eko irailean %57,90ekoa izatetik 2011ko irailean %60,49koa izatera.

Uztailean, abuztuan eta irailean %5 bidaiari gehiago sartu dira Euskal AEn, 2010eko denboraldi beraren aldean, hau da, 38.342 bidaiari gehiago sartu dira. Hiru lurraldeetan igo da kopuru hori: Araban %4, Bizkaian %9 eta Gipuzkoan %1. Igarotako gau kopuruak ere bilakaera positiboa izan du aldi horretan, %7 egin du gora. Araban %3, Bizkaian %12 eta Gipuzkoan %2. Batez besteko egonaldiak pixka bat gora egin du: 2010ean 2 egunekoa zen eta 2011ko udako hilabeteetan 2,02 egunekoa, batez beste. Okupazio maila, bestalde, %61,25ekoa izan da hiru hilabete horietan, aurreko aldi baino %5 handiagoa.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

2011ko irailean sartu den eta gaua igaro duen bidaiari kopurua % 6 igo da Euskal AEn, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta

Euskal AEko nekazaturismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Joan den irailean 10.366 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino %6 gutxiagok. Gainera, hiru lurraldeetan izan dira emaitza negatiboak. Bizkaian %9 egin du behera sarrera kopuruak; Gipuzkoan %6 egin du behera eta Araban %1. Estatutik etorritako bidaiari kopurua %9 jaitsi da Euskal AEn: Bizkaian %14 jaitsi da eta Gipuzkoan %10, baina Araban ez da aldaketa nabarmenik eman (%0). Atzerritarren presentzia %23 igo da Euskal AEn. Gipuzkoan %40 atzerritar gehiago izan da eta Bizkaian %18 gehiago; Araban, aldiz, kopurua %13 jaitsi da.

Irailean 27.316 gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan; honek %6ko beherapena ekarri du aurreko urteko irailaren aldean. Bizkaian kopuru horrek %14 egin du behera, Araban %6 eta Gipuzkoan %2.

Euskal AEko batez besteko egonaldia ez da askorik aldatu, 2010eko irailarekin alderatuta; aurreko urteko 2,64 eguneko egonaldia eman da orain ere. Lurraldeka, Araban %5 jaitsi da, bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia 2,36 egunekoa izan zelako 2010ean eta irail honetan 2,24 egunekoa izan delako; Bizkaian ere jaitsi da %5 batez besteko egonaldi kopurua, 2,71 egunetik 2011ko irail honetan 2,58 egunera igaro baita; eta Gipuzkoan egonaldia %4 igo da, 2,70 egunetik irail honetan 2,82 egunera igarotzean.

Plazen araberako okupazio maila % 9 jaitsi da Euskal AE osoan, %24,52tik %22,34ra igaro da, hiru lurraldeetan egondako beherakaden ondorioz. Bizkaian %13 jaitsi da, Araban %12 eta Gipuzkoan %5.

2011ko **uztailean, abuztuan eta irailean** %1 igo da EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetara etorritako bidaiari kopurua, aurreko urteko hilabete berberekin alderatuta. Eta lurralde guztiak aztertzean honako datuak eman dira: Araban eta Gipuzkoan %1 eta %2 egin dute gora, hurrenez hurren, eta Bizkaian %1 egin du behera. Igarotako gau kopuruak guztira %2 egin du behera. Hiru lurraldeetan izan ditu datu honek emaitza negatiboak: Araban eta Gipuzkoan %2 egin du behera eta Bizkaian %4. Euskal AEko okupazio mailak %5 egin du behera eta hiru hilabete hauetan %39,82an geratu da; bestalde, batez besteko egonaldia 3,49 egunekoa izan da.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	09 2011	(%)	09 2010	(%)	Δ %	09 2011	(%)	09 2010	(%)	Δ %	09 2011	(%)	09 2010	(%)	Δ %	09 2011	(%)	09 2010	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	442.457	100	414.777	100	7	63.308	100	63.957	100	-1	206.251	100	184.906	100	12	172.898	100	165.914	100	4
Estatukoak	274.203	62	265.156	64	3	45.864	72	42.595	67	8	129.043	63	115.601	63	12	99.296	57	106.960	64	-7
Atzerrikoak	168.254	38	149.621	36	12	17.444	28	21.362	33	-18	77.208	37	69.305	37	11	73.602	43	58.954	36	25
Hiriburua	276.593	63	261.474	63	6	45.432	72	44.588	70	2	137.379	67	124.833	68	10	93.782	54	92.053	55	2
Litoral	53.291	12	49.515	12	8	-	-	-	-	-	17.045	8	15.537	8	10	36.246	21	33.978	20	7
Barnealdea	112.573	25	103.788	25	8	17.876	28	19.369	30	-8	51.827	25	44.536	24	16	42.870	25	39.883	24	7
BIDAIARIEN SARRERAK	229.118	100	214.732	100	7	35.704	100	33.954	100	5	111.021	100	99.856	100	11	82.393	100	80.922	100	2
Estatukoak	141.700	62	137.762	64	3	25.343	71	23.230	68	9	69.807	63	64.478	65	8	46.550	56	50.054	62	-7
Atzerrikoak	87.418	38	76.970	36	14	10.361	29	10.724	32	-3	41.214	37	35.378	35	16	35.843	44	30.868	38	16
Hiriburua	138.895	61	132.085	62	5	23.550	66	22.002	65	7	71.463	64	65.771	66	9	43.882	53	44.312	55	-1
Litoral	24.253	11	23.688	11	2	-	-	-	-	-	8.778	8	8.642	9	2	15.475	19	15.046	19	3
Barnealdea	65.970	29	58.959	27	12	12.154	34	11.952	35	2	30.780	28	25.443	25	21	23.036	28	21.564	27	7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,93		1,93		0	1,77		1,88		-6	1,86		1,85		1	2,10		2,05		2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	54,68		52,18		5	46,84		48,05		-3	53,13		49,28		8	60,49		57,90		4
Hiriburua	61,85		59,82		3	49,14		48,87		1	63,07		58,92		7	68,51		68,69		0
Litoral	58,30		55,72		5	-		-		-	43,94		41,37		6	68,88		66,23		4
Barnealdea	41,60		38,60		8	41,87		46,25		-9	39,39		35,41		11	44,50		39,39		13
BETETZE-MAILA GELAKA	64,74		62,06		4	55,84		58,81		-5	64,25		60,63		6	69,74		65,38		7
Hiriburua	73,81		72,10		2	60,78		61,98		-2	75,14		72,30		4	80,79		79,04		2
Litoral	63,67		62,10		3	-		-		-	50,54		48,10		5	73,70		71,52		3
Barnealdea	49,93		44,73		12	44,20		48,35		-9	49,67		43,79		13	52,64		44,87		17
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	27.316	100	29.012	100	-6	4.648	100	4.937	100	-6	7.353	100	8.501	100	-14	15.315	100	15.574	100	-2
Estatukoak	23.122	85	25.226	87	-8	3.969	85	4.303	87	-8	5.807	79	7.226	85	-20	13.346	87	13.697	88	-3
Atzerrikoak	4.194	15	3.786	13	11	679	15	634	13	7	1.546	21	1.275	15	21	1.969	13	1.877	12	5
BIDAIARIEN SARRERAK	10.366	100	10.991	100	-6	2.077	100	2.092	100	-1	2.854	100	3.137	100	-9	5.435	100	5.762	100	-6
Estatukoak	8.973	87	9.859	90	-9	1.929	93	1.922	92	0	2.322	81	2.686	86	-14	4.722	87	5.251	91	-10
Atzerrikoak	1.393	13	1.132	10	23	148	7	170	8	-13	532	19	451	14	18	713	13	511	9	40
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,64		2,64		0	2,24		2,36		-5	2,58		2,71		-5	2,82		2,70		4
BETETZE-MAILA PLAZAKA	22,34		24,52		-9	17,33		19,76		-12	19,06		21,98		-13	26,93		28,49		-5
BETETZE-MAILA GELAKA	24,53		26,88		-9	19,38		21,50		-10	20,96		24,51		-14	29,55		31,12		-5

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01.

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua